

LIONEL JOLY

Deskribapena: Kike eta Lionel Joly Zarautzeko malekoitik paseatzen eta, elkarriketan ageri dira:

Kike: “Aizu Lionel, ea, zein dira normalean erabiltzen diren aldagairik nagusienak, hizkuntzak eta dialektoak bereizteko?”

Lionel: “Adibidez, geografikoa; e, ba esaten da e, hizkuntza bat dialekto bat baino eremu geografiko zabalago batean erabiltzen dela, ba, eta, dialektoa eremu txikiago batean. Baina hori, subjektiboa da, ze, hartzen baldin baduzu ingelesa, adibidez, ikusten da Ingalaterran oso esparru geografiko mugatua da eta aldiz, Ipar Amerikan, ba Estatu Batuak, Kanada askoz... haiek, dialekto bat erabiltzen dute, ingelesaren dialekto bat baino askoz eremu geografiko handiago batean. Bigarren aldagai bat erabiltzen dena elkar-ulergarritasuna da. Alegia, zuk hizkuntza bat erabiltzen baldin baduzu eta nik beste hizkuntza bat ez diogu elkarri ulertzen, aldiz, zuk hizkuntza baten dialektoa erabiltzen baldin baduzu eta nik beste dialekto bat elkarri ulertzen diogu baina hori aldagai hori ere, subjektiboa da. Euskal Herrira ekarrita adibidez, Durangoko bat Xüberotar batekin ba elkar ulertzeko arazoak egongo dira.”

Kike: “Eta hala ere biak hizkuntza bera direla esaten dugu, ez?”

Lionel: “Eta hala ere...Bai, hori da.”

Kike: “Eta beste aldagaiak?”

Lionel: “Bai, agian gakoa dena eta garrantzitsuena hizkuntza izaerarekin edo maila linguistikoarekin zerikusirik ez duena sozio-politikoa da. Askotan oso esaldi famatu bat dago, zera, hizkuntza bat ejertzitua duen dialektoa dela esaten da. Alegia, dialekto batek lortzen duenean e, ofizialtasun bat, estatu maila batekin lotzen denean, ba, hor bihurtzen da hizkuntza baina noski, hori ez da linguistikoa baizik eta sozio-politikoa.”